

IRITZIA

Jose Mari Bastida

KALE INKESTA

Gustatzen zaizu
King Kongeko
zubiko irudia?


BERBETAN

Asier Albizu,
DEBEMENetik
Eusko Jauralaritzara

BARREN

1998ko martxoaren 13a
VI. urtea - 229. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Makina Erremintaren
Biencala



**Elgoibarko
teknologiaren eskaparatea**

“Makina Erremintaren etorkizunaz hasi bihar gera berba eitxen” Pedro Agirregomezkorta

Martxoak 19, San Jose

Zorionak,



Giltzatak
ARANBURU bitxidenda



Argazki kamara eta prismaticoak
AZKUE argazkidenda



Pixama eta bata
ECENARRO mertzeria



[puntuazio bikoitza]
Eguzkitako betaurrekoak
UZURI optika



Txandala eta zapatilak
IRIONDO kirolak



Postalak
PITXINTXU oparidenda



Zapatilak
ASTIGARRAGA kirolak



Erlojuak (6 hilabeteko garantzia)
BAZAR desde 100



Puro kaxa
GARATE tabakodenda



Botak eta prakak
MUXI kirolak



Eguzkitako betaurrekoak
IKUS optika



JOSE MARI BASTIDA

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Afrikar bat Valentzian

Aita-ama, papa-mama, madre-padre. Bistakoa da hitzok gauza bera adierazi nahi dutela. Diferentzia ez da gramatika (baita ere, noski, baina ez da aztertzea nahi dudana), zein lekutan eta zein momentutan erabili behar diren baizik. Hau dela-eta, zuek esango didazue Elgoibarrera etortzen naizenean gertatzen zaidana nola konpondu behar dudana.

Aita (ni, noski) elgoibartarra; ama Logroño-koa eta bizilekua Valentzia (oso ezaguna bai: Benidorm, paella, fallak eta Cid Campeador). Lau urteko semea dugu, Ion, Valentzian jaioa (hemendik 20 urtera ez da ez valentziar, ez elgoibartar, ez errioxar izango, baina hori da emigranteek jasan behar ditugun ondorioetariko bat).

Ionek lau urte ditu eta gaztelaniaz aritzen da gehienbat. Eskolan eta beste momentu askotan valentziera ulertu beharra dauka (euskara edo katalanaren parekoa). Ama gaztelaniaz jarduten zaio. Aitak, berriz, (bitxo arraroa) semea jaio zenetik behin-betirako euskaraz mintzatzea erabaki zuen bai Valentzian, bai Logroñon bai Elgoibarren nahiz Hong Kongen. Lau urte hauek nahikoak izan dira Ionek euskarari dagokion gehientsuena ulertzeko. Baina, gizajoa, hitz egiteko momentuan datoz komeriak! A zer nahasteak egiten dituen! Hona hemen adibide batzuk:

“Aita!, pásame jaboia”. Edo “hartu esto; exeri nerekin y jugamos, ¿vale?”. Zenbakiekin ere berdin: “bat, bi, hiru, lau, bost, seis, siete, ocho... Una bat eta ya está ¿vale?”

Nahiz eta nahasketa izan, poztu egiten nau euskara nolabait onartzen duela ikusteak. Baina okerrena ez da etxe barruan botatzen dituenak, kalean egunero gertatzen diren bitxikeriak baizik, bai Valentzian bai Elgoibarren.

Valentzian, lau hilabete zituela haurtzain-

degira eraman genuen. Urtebetekin hasi zen hitzegiten. Ionentzat gurasoak beti izan gara aita eta amatxo. Hasieran andereñoek ez zuten ulertzen zer zioen, eta zerbaiten beldurrez-edo, nirekin mintzatzea erabaki zuten. “¡Oye!, este niño de vez en cuando habla un poco raro!, porque cuando le preguntamos por tí, dice algo así como áita”. Azaldu beharreko guztia azaldu ondoren betiko leloa: “¡Hombre! eso está muy bien, yo también tengo amigos vascos y son gente muy maja... bla, bla, bla”. Kontu hauek “Un africano en Valencia” izenburuko liburu bat betetzeko ere balioko lukete.

Ez da, ez, gauza makala Elgoibarren sarritan gertatzen zaidana. Umea eta biok merkatu plazaren irteeran. Ion haserre, eta erosketak egin dituen edozein emakume goxo hurbiltzen zaigu: “zer gertatzen jatzu maitxia?, nahi dozu ogi pixka bat?. Ionek burua esku artean umeek duten negar faltsu horrekin. Emakumeak aitari begiekin esaten: “oso modernuak zerate baina ez dakizue umiak tratatzen”. Umea merkatu plazaren irteeran. Aita San Frantzisko iturrian eta susmatzen nuena gertatzen da: umeak burua jaso eta “...¡Papáááá!”. Neu, lotsaren lotsaz, ezkutatzeko lekuri aurkitu ezinik. Emakumeak, ixilik, boltsa hartu eta alde. Ionek berriz “¡papá, vengas aquí!. Jendea sartu-irtenean eta inork kasurik ez, edo kasurik egin nahi ez, eskerrak dena den. Nik sekulako haserre adierazten diot aurpegian eta etxerantz jotzen dugu, umeak ezer ulertu gabe eta ni inork ezagutu ez nauen esperantzarekin. Bestela, betikoa esan behar: Valentzian bizi da... badakizu, ez daki euskara larregi oraindik...

Ez dakit zein ondorio azaldu nahi ditudan, baina ume bat haserre eta aita urrun eta urduri ikusten badituzue ez garrantzirik eman. “Afrikar baten istorioak Valentzian” besterik ez dira eta.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
 ☎ **74 41 12**
Publizitatea:
 ☎ **74 37 04**
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaita Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maidar Elustondo, Jon Eugi,

Aintzane Garate,

Jon Garate, Amaita Gorostiza,

Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Miriam Iriondo, Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loliola,

Ongarri Zine Kluba,

Julian Segundo, Jon Suarez,

Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi, Iban Urizar.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura
 Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldizkaria.*



Nahikoa da!!

Hasteko, Elgoibarko Jarraik deialdia egiten dizue elgoibartar guztioi larunbatean, martxoak 14, arratsaldeko 17:30ean, Iruñean egingo den manifestaldira joateko, 'Itoitzeko Solidario' en aurka egingo den epaiketa faltsua salatzeke izango den manifestaldirako deialdia, alegia.

Beste behin ere, elgoibartarrok, espainiar erreinuaren beste bidegabekeria bat gertatzera doa: 'Itoitzeko Solidario' en aurkako epaiketa da honako honetan "demokrazia" honen bidegabekeria, Nafarroako natura gogorki birrinduko duena. Euren interesak dituzte, eta horretarako edozer egiteko prest daude.

Horregatik, Elgoibarko Jarraik bat egiten du zortzi 'solidario'ekin; beraiek egin zutena norbaitek egin behar zuelako, hau da, norbaitek gelditu behar zituelako legez kanpoko eta naturari sekulako kaltea egiten dioten lan horiek.

Naturaren kontrako txikiziorik ez!!!

Solidarioak errugabeak!!

Elgoibarko Jarrai

Udaltzaingoaren erabilera politikoaz

Garro sarjentuak "gure eguneroko lanaren efikaziaz" hitz egiten duenean, gauza asko ezkututzen ari da. Ez dakigu arazoren bat edo beste konpondu duten, baina badakiguna zera da: hainbat kontutan duten jokabide bikoitza eta Udaletxean agintzen dutenekiko morrontza, hainbat pertsona eta kolektibo jazarri edo eta beraiekin liskarrak izatera iritsiz. Gauzak honela, beraien ugazaben arduragabekeriak ezkutatzera ere iritsi dira. Hiru adibide besterik ez:

- **Indarkeriaren erabilera protesta baketsuen aurka.** Hainbat aldiz indarra erabili dute Udaletxean burututako ekintza baketsuak eragozteko. Gazteak lurretik arrastaka eramane eta

kolpeak ematera iritsiz zenbait kasutan. Badaude beraien amorrua gaineratzen duten udaltzainak, agintean daudenen politika defendatzeko. Hau dena militarismoaren aurka, ingurugiroaren alde... borrokatzen dutenen kontra egiten dute. Azkenengo aldiz otsailaren 27ko osoko bilkuran gertatu zen.

- **Adierazpen askatasunaren aurka** aritzen dira.

Azken bi urte hauetan 300 gaztigu kartelak jarri eta pintadak egiteagatik, baita ere jendea jazartu zenbaitetan. Ez dira oroitzen, noski, udaltzainek ere herri guztian zehar kartelak jarri dituztela alkateak horrela agindu die-nean. Udalaren zigilua daramaten kalleko karteletan buruz ere ez dute ezer ez esaten (iragarki komertzialez ez hitz egiteagatik). Argi dago ez zaiela komeni honez guztiaz oroitzea, betikoei garbiketa gastuen ardura egozteko orduan.

Salatari lana eta desalojo, borroka egun, manifestazioetan,... Ertzantzari emandako laguntza ahaztu gabe.

- **Delituak izan daitezkeen gertaerak ezkututzen dituzte.**

"Elgoibar, herri garbi bat" kanpainan murgilduta eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lan Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusiaren gomendioei jarraionekin egin gabe, San Lorentzo errekaaren azken aldea eta Deba ibaia larriki kutsatu ziren.

Aldundiak Udalarri gomendatu zion Alcorta, Unzueta y Cía. ren lantegia bota aurretik, tanke, deposito eta bidioietako sustantziak kontu handiz ateratzeko. Lan zorrotz horren emaitza Deba ibaian zehar kiratsa zerion eundaka metrotako lohiunea izan zen. Udaltzaingoa honen lekukoa izan zen baina herriak ez zuen ezer ez jakin. Hiru hilabete pasa dira eta ez da ezer ez gertatzen.

Amaitzeko, zera gogoratu nahi diogu Udaltzaingoiari: txintik atera gabe herritarren aldarrikapenen kontrako errepresore politikoak bilakatzen badira, horren ondorioak onartu beharko dituztela.

P.D. Pertsona zehatz batzuentzako lana egiten badute, zergatik ez diete soldata haiei eskatzen?

Gazte Asanblada

GALDERAK

◆ Emakume talde batek deitu digu honako hau esateko: **“Zortzi eta hamar urte bitarteko seme-alabak ditugu eta haurrentzako zine emanaldi gehiago jartzeko eskatzen digute, batez ere orain, neguan. Ba al da saio gehiago emateko aukerarik?”**

Hona hemen Kulturako teknikariaren erantzuna: “Zine emanaldi gehiago ez egotearen arrazoia da produktorek haurrentzako pelikula gutxi izaten dituztela, ez dago eskaintzarik. Askotan ‘tolerada’ deitzen direnak jar-tzen ditugu haurren emanaldietan baina zenbait gurasori ez zaizkie aproposak iruditzen haur txikientzat. Beraz, ezin daiteke saio gehiago antolatu eskaintza oso murrizta delako”.

TXALOAK

◆ Emakume batek **Haizea Emakume Taldea** txalotu nahi du joan den asteburuan antolatu zituen ekin-tzak “asko gustatu” zitzaizkiolako.

B AI, E S A N ?



Esteban Antxustegi

Filosofia irakaslea

Ramon San Pedro galiziar tetraplejikoaren bizitza eta heriotza gogor-rrak izan baziren, are gogorragoak izan dira gizon honen bizitzako azken uneak erakusten zituzten telebistako irudiak. Gai honen inguruan berba egiteko **Filosofia irakaslea den Esteban Antxustegi** elgoibartarrari deitu diogu. Ikus dezagun zer esan digun.

- **Hasieran eutanasia bai ala ez izan zen eztabaida. Zein da gizartean dagoen jarrera?** - Horretarako azterketa soziologikoa egin beharko litzateke, eta bertan zenbait faktore kontuan izan (adina, sinesmena, osasuna, bizi-kalitatea etab.). Dena den, kasu honetan jarrera soziala baino gehiago kontzientzia arazo baten aurrean gaudela esango nuke.

- **Orain, berriz, irudi horiek telebistan eman daitezkeen ala ez. Kontra zegoen jende asko ez al zen irudien zain egon?** - Hemen ere, sarritan bezala, bi interes kontrajartzen dira: alde batetik informatzeko eskubidea, eta bestetik, batzuen edo gehiengoaren sentsibilitatea edo ikuspuntua bortxa daitekeen iritzia. Horrelako arazoak zenbaitetan ere plazaratu izan dira, adibidez, biolentziazko irudiekin, umeek ikus ditzaketen hainbat programarekin etab. Hala ere, irudi hauek agertu ziren orduak eta aurretik emango zirela abisatu izana kontuan izanik, gehiegizko zalaparta sortu dela iruditzen zait.

- **Zein da zure iritzia bi gai hauen inguruan?** - Uste dut gai honek benetan garrantzia daukala, eta datorren mendeko eztabaida-guneetariko bat izango dela eta edozein irteerarako askatasunak eta sinesmenak borrokaleku handia izango dutela. Guztiok bizitzeko eskubidea baldin badaukagu, ez ote daukagu hiltzeko eskubide bera, eta geuk ezin badugu geure buruaz beste egin, ba al daukagu geurea izan daitekeen eskubidea gauzatzeko beste bati laguntza eskatzerik? Gaur egun, giza eskubideez hainbeste hitz egiten denean, gai honetan bederen, eskubideen zerrenda ez dago batere zehaztuta eta itxita.

- **Erabakiak hartzeko askatasuna, erlijioa, bizitza, etika, kode deontologikoa,... hau da nahastea. Irakasle zaren aldetik, zer argitu diezagukezu?** - Erabakiak hartzea ez da batere erraza. Sarritan gustatuko litzaiguke egin behar duguna “erabakita” etortzea, baina jakin badakigu hori gure esku baino ez dagoela. Horregatik, erantzun hutsaren gainetik eta azpitik, beste zenbait faktore (sentimentuak, duintasuna, kupida, laguntasuna etab.) aintzat hartu behar ditugulako, erabakiak hartzeak, erresponsableagoak egiten gaituen neurrian, gure askatasuna frogatzen du.

ESKERTZA



1998ko martxoaren 5ean, 84 urte zituela hil zen MANUELA IRIONDO ZABALAren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



20BIEMH

Eskaparate

teknologiko handiena

Makina Erremintaren Bienalaren 20. edizioari eman zitzaion hasieran joan den astelehenean eta bihar arte, martxoak 14, iraungo du. Guztiok ezagutzen dugu Elgoibarrek sektore horretan duen indarra eta horregatik, BARREN astekarian ohitura bihurtu da Bilbora joan eta zenbait elgoibartarrekin hitz egindakoarekin erreportajea egitea. Lehenengo egunean izan ginen ferian eta guztiek aipatu zuten sektorearen gorakada eta egoera benetan emankorra. Datu bat: Danobat Soraluze enpresak 4.200 milioiko kontratua sinatu du Iran-eko enpresa batekin.




PEDRO AGIRREGOMEZ-KORTA
Zuzendari nagusia
AGME

“Gaur egun AGMEk bi planta dauka. Alde batetik makinaria espeziala (%60) dago, ensablaje automatikorako makinak egiten direlarik. Bestetik, makinaria estandarra

(%40) deitzen dana dakagu, rematxatzeko, markatzeko eta prentsa hidrauliko eta pneumatikoak egiteko. Plantila 65 langilek osatzen dute eta urteko fakturazioa 900 milioi pezetakua da. Iez asko esportatu gendun, %60-70 inguru, eta aurten ere perspektiba onak daude. Hasieran beti egoten da zalantzia: nora jungo geran esportatzera, zela, ze plan estrategiko erabili bihar doun, merkatua zela bilauko doun... 94an enpresian imagina lantzeko teknologixan eta personalan formazian inbertidu genduan.

Aurten ferixia oso ondo ikusten dot. Kanpora begira irudi ona eman dau eta sekula baino enpresa gehixo etorri dia. AFMk lan ona in dau. Konfiantzia ematen dau aurrera eitxeko. Usten dot krisi garaixan gaizki ibili zian enpresak hasi dila errekuperatzen eta momentu honetan makina erreminta sektorian etorkizunari buruz hasi bihar da berba eitxen”.



JOSE MARI RIAÑO
Gerentea
KONDIA

“Kondia arranke mailan dao makina erreminta sektorian. Fresadorak eta mekanizatu zentruak eitxen ditxugu. Momentu honetan 100 langile gaude eta urtian 3.000 milioi fakturazten ditxugu, gutxi gorabehera. Esportazio

maila %60 ingurukua da eta batez ere Europa, Estatu Batuak eta Kanada dia gure klientiak.

Momentu honetan makina erremintaren sektoria estabilizauta dauala esango nuke baina ez dot hain garbi ikusten gorakadia. Egixa da guk ez doula lan eitxen epe luzera, ze gure produktak eta gure klientiek epe motzera eskatzen ditxue makinak, bi hilabetera eta hola. Tokau laike hilabete oso ona eta beste bat ez hainbeste, baina luzera zela jungo dan... Frantzia eta Alemanian esaterako, gauzak ez daude hain ondo, daretik dao. Gu momentu onian gaude eta indikadore danak onak dia baina ezin laike jakin zer pasauko dan urte batzuetara. Inbersiuak ein bihar dia baina kautela piska batekin”.



Jose Antonio Ardanza lehendakariak inauguratu zuen Makina Erreminta Azokaren 20. edizioa. Ardanzak aipaturiko sektoreak gaur egun bizi duen egoera “eman-korra eta etorkizun oparoa” azpimarratu zituen. Era berean, enpresei dei egin zien, “ahalik eta gehien kolabora dezaten elkarrekin aliantza estrategikoak, ‘holding’ enpresarialak edo fusio definitinoak eginez”. Lehendakariak adierazi zuenez, “makina erreminta sektorearen lana funtsezkoa izan da industriaren modernizazio teknologikoan, eta beste sektoreen konpetitibitatea igo du”.



Aurtengo edizioan 1.600 enpresa aurkeztu dira.

Esportazioen gorakada

AFMko lehendakaria den Francisco Gabilondo elgoibartarraren esanetan, “enpresek izugarritzko aha-

legina egin dute azken urteotan krisitik ateratzeko. Gaur egun enpresak etapa berriei paso eman eta lanpostuak sortzeko bideak irekitzeko ilusioz daude”. Alberto Ortueta, AFMko zuzendari nagusiaren hitzetan, berriz, “makina erremintaren sektoreak datozen 6 hilabeteetarako lana ziurtatua dauka, hau da, 1998 urteari

begira eskaerak eginak daude. Ez da atzera pausorik ikusten beraz, lortutako maila eta egoera mantentzen saiatu behar dugu denok”. Izan ere, datuen arabera, 1997an makina erremintaren produkzioa 119.300 milioira igo zen, 1996an baino %17a gehiago. Azken bi urteotako igoera esportazioen gorakada eta barne merkatuaren hobekuntzan oinarritzen dira. Izan ere, 1996an esportazioak %33a igo ziren eta iaz %15a, sektorearen historian izan diren gorakadarik handienak. Bezero garantzitsuenak Alemania, Estatu Batuak, Britainia Handia eta Frantzia dira.

1600 enpresa

Sekula baino enpresa gehiagok hartu du parte Makina Erreminta



FAUSTINO GARITANO
Gerentea
BRONCES GARITANO

“Gure enpresak brontzezko piezak eta matrizeria elementuak egiten ditu eta Italiako etxe baten muelle eta zilindroak inportatzen ditugu matrizeriarako. Guztira 14 langile gara. Horietatik 8 Elgoibarren eta gainontzeko-

ak Bilboko fundizioan daude. Urteko 500 milioitik gora fakturatzen ditugu. Batez ere Alemania, Brasil, Portugal eta Frantziara esportatzen dugu. Estatu espainiarrena ezagutzen gaituzte, baita munduan zehar ere. Gaur egun dagoen erronkarik handiena mantentzea da. Gure enpresa Estatu espainiarrean lehenengo postuan dago altzairu inoxidablea egiteko brontzeari dagokionean, Alemania gehien esportatzen dugunak gara. Urte asko iraun duten azterketen ondoren material berri bat sortu dugu, amerikar sinadura baten antzekoa baina gurea hobea. Aurrikuspen onak ditugu urte honetarako. Ekonomia egoera onean dago eta maila berean jarraitzea espero dugu”.

MIGEL ANGEL MONTES
Zuzendari gerentea
COMETEL

“Cometel-ek txiribien garraio eta ebakuaziorako instalakuntzak egiten ditu, txiribiak tratatzen ditu makina erreminta eta instalakuntza zentralizatuetaarako. Bestalde, olio eta taladrinen filtrazioak eta industria siderometalurgi-



koaren piezen mantentzioa ere lantzen dugu. Guztira 27 langile gaude. Produkzioaren %30a esportatzen dugu gutxi gorabehera, batez ere Alemania, Frantzia, Portugal eta Hego Amerikara. Aurten optimismoa nagusi da, enpresetan lana dago eta erronka bezeroak mantentzea da. Honelako azokak oso baliogarriak dira bezeroek zuzenean produktua ezagut dezaten. Bisita asko egiten dira eta emaitza onak izaten dira. 1997 urte ona izan zen eta 1998ari begira ere aurrikuspen onak ditugu. Gaur egun ez da krisi garaira begiratzen, alderantziz, oso ondo ari gara saltzen eta batzuetan gertatzen da danera ezin iritsi izatea eskaera handia dagoelako”.

Azokaren edizio honetan. Izan ere, orain dela bi urte 1.265 enpresa izan baziren ikusgai, aurten kopurua 1.600era igo da, hau da, %26a gehiago. Mundu osoko 32 herrialdetako enpresek hartu dute parte aurtengo edizioan. Horietatik %52a Estatu espainiarrekoak, %25a Europako gainontzeko herrialdeetakoak, %5a Asiakoak eta %4a Amerikakoak. Guztira 568 erakustoki izan dira ikusgai 35.613 metro karratuko azalerako azokan, iaz baino %37a handiagoa. Gainera, munduko 32.000 profesionalak baieztatu zuten ferriara joango zirela.

Diseinu saria

Aurtengo edizioan duela lau urte sortu zen Diseinu Saria eman da. DZ diseinu zentroak ematen du honako sari hau eta produktuen diseinua, berrikuntza eta sormena lantzen duen enpresari ematen zaio. Lehenengo edizioan Kondia enpresa elgoibartarrak irabazi zuen eta aurten Tekniker fundazioari suertatu zaio saria, Bizkor izeneko abiadura handiko fresadora bertikal baten proiektuari esker. Era berean, aurten, Makina Erreminta Azokaren 20 edizioetan etnik gabe parte hartu duten enpresei omenaldia egin zaie eta horien artean lau elgoibartar aurkitzen dira: Mupem, Danobat, Etxe-Tar eta Kondia.

Aurtengoa, beraz, etorkizuneko azoka izan dela esan daiteke. Egia esan, gero eta gehiago zaintzen dute detailerik txikiena. Besteak beste, moztrotutako neskak ikusi genituen, baita Ferrari etxeko auto gorri ikusgarria ere, hainbat erakustokik taberna ziruditen, ikusentzunezkoak han eta hemen ikus zitezkeen eta pieza txiki asko bitrina ikusgarri eta argitsuetan sartuta zeuden, bitxirik preziatuenak izango balira bezala. Hau guztia, makina erremintaren sektoreak bizi duen egoera onaren lekuko, dudarik gabe.



VALERIO IÑIGUEZ
Gerentea
DANOBAT SORALUZE

"Auto industriarako makina espezialak eta transferrak egiten ditu Danobat Taldeak. Guztira 800 langile daude. 1998 urterako 20.000 milioiko fakturazioa aurrikusi dugu eta betetzea espero da bezeroek eskaera

onak egin dizkigutelako. Iazko zenbakiekin konparatuz %30a gehiago suposatuko du aurtengo fakturazioak. Danobat Soraluze enpresak esaterako, Iranekin kontratu bat sinatu berri du 4.200 milioikoa. Peugeot 205 autoarentzako motore blokeak eta kullatak fabrikatzeko lineak eskatu dizkigute. Makina erremintaren historian Estatu osoan sekula sinatu izan den kontraturik garestiena da. Bezeroei irtenbide integralak ematen saiatzen gara.

Mekanizatu zentroi dagokienean, berrikuntza aurkeztu dugu autoen industriarako pieza prismatikoak egiteko. Bi bertsio aurkeztu ditugu, bata motore konbentzionalekin eta bestea motore linealarekin. Azken honek minutoko 100-120 m-ko abiadura du eta 1G-ko azelerazioa. Motore konbentzionalarekin, aldez, abidura minutuko 60 metrokoa da eta azelerazioa 0,8 eta 1G bitartekoa."



OIERKI IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
☎ 20 35 15 • ☎ ABERIAK 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR



KAROBI
TABERNA
Tel. 74 06 37
San Frantzisko, 37



Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR

Gustatzen al zaizu King Kong-eko zubian jarri duten irudia?



M. GARMEN ZAMBRANO
22 urte, erizain laguntzailea

Ez dut gehiegi ulertzen baina, ez, ez zait batere gustatzen. Jarri duten lekuan jartzeak ere ez dio mesederik egiten inguruko estetikari.



SABIN LARIZ
63 urte, jubilatua

Bai, gustatzen jata eta euki douz diskusiñuak honi buruz. Gustatzen jata orijinala dalako eta bertarako apropos einda dauala ematen dabalako.




PEDRO GONZÁLEZ
76 urte, jubilatua

Irudia gogoko dut baina lekua ez zait aproposa iruditzen. Plaza Txikian edo herriko beste edozein tokitan ikustea nahiago nuke.



LUZIA DIEGUEZ
9 urte, ikaslea

Irudia zatarra dala iruditzen jata, ahua daka oso zatarra. Zubixan jartzia ondo dao baino eskultura hori baino zeozer politxaua jarriko nuke.



GORKA OSTOLAZA
16 urte, ikaslea

Ez naiz asko fijau baina egi-xa esan, alperrik dauala us-te dot. Ez dakitx zer pinta-tzen daban horrek hor. Eskultura ere ez jata gehixegi gustatzen.



BELEN BERNEDO
40 urte, umezaina

Eskultura gogoko dut baina ez zait gustatzen nola geratzen den zubian. Beste non-baiten hobeto legoke, non ez dakit. Zubia bera ere hain da zatarra...

ESKERTZA



1998ko otsailaren 20an, 75 urte zituela hil zen PEDRO ZUBIAURRE SAN MARTINen sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA



1997ko martxoaren 11n, 78 urte zituela hil zen BENITO JUARISTI URANGAren oroimenez URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian larunbatean, hilak 14, arratsaldeko 19:00etan. Joaten zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



● **Parrokiaren diru-eskaria**

Elizako berritze-lanen bigarren faseari dagozkion hainbat lan, sakristiaren eta parrokiako lokalen egokitzea kasu, egiteke daude oraindik. Elizako Obren Batzordeak diru-eskea hasteko asmoa du laster batean. Dagoeneko Elgoibarko zenbait enpresa eta erankuderi aurkeztu zaizkie 60 milioi inguruko aurrekontua. Sakristia-ko lanak amaitzean, berriz ere ikustaldi gidatuak izango dira. Elizako Obren Batzordeak elgoibartarren eskuza-baltasuna nabarmendu eta eskertu nahi du. 1993tik 1997ra bitartean, parrokiako hileroko eskariak eta Gabonetako loteriaren etekinak barne, 94 milioiko kopurua batu da. Honi Danobaten 4 milioi, zenbait enpresak emandako 4,5 milioi eta Udalaren 16,5 milioiko laguntza gehitu behar zaio. Beraz, aipatutako lanei kolpe egin ahal izateko, guztien aportazioa beharrezkoa da. Kutxan zein Euskadiko Kutxan egin daitezke emariak.

● **Miren Gorrotxategi Donostia Hiriko piano lehiaketan**

saritu dute



Miren Gorrotxategi pianojole elgoibartarrak Donostia Hiriko V. Piano Lehiaketan parte hartu du. Modalitate berri batean, bi pianok batera

jotzen duten modalitatean, hain zuzen, sari bat jaso du elgoibartarrak. Miren Gorrotxategik Oñatiko Arantzazu Saizekin batera jo zuen eta bientzat izan da saria. Lehiaketa honetan adin guztietako 100 pianojoletik gora aritu dira gehienak, gipuzkoarrak eta errusiarrak zirelarik.

Maturana Garraio Sailburuak San Migeleko erreka toa inauguratu zuen

400 milioiko kostua izan dute ubideratze lanek

Jose Antonio Maturana Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Obra Publiko- en sailburua Elgoibarren izan zen joan den ostiralean San Migeleko erreka- toko lanak inauguratzen. Bide batez, Maturanak, Icaro eskulturaren inau-

gurazioan parte hartu zuen. Ekitaldian alkatea ere izan zen. Udalak emandako datuen arabera, San Migeleko erreka- toko ubidearen lanek 400 milioiko kostua izan dute eta Maturanak begi onez ikusi omen zituen bertan

egindako obrak. 1995ean hasi ziren lanak eta ubide berria egin dute uholde arriskua gu-txitekoko, ubide zaharrak ezin baitzuen eurite handiek eragindako ur bolumena jasan.

Jose Antonio Maturanaren esanetan, "udazken aldera uholdeen kontrako programaren barruan, San Lorentzoko erreka- ren azken aldean obrak hasteko asmoa dugu". Aldundiak inguru hartako lurrak erabiltzeko aukera baduela jakinarazi zion alkateak eta beraz, Madalako lanei lehenbailehen ekiteko lehen pausoa izan daiteke.



aitor zabala

Icaro, King Kong-eko zubitik zintzilik

Eskultura honek ikusmin handia sortu du herritarren artean

Joan den ostiralean jarri zuten King Kong-eko zubian Esperanza D'ors artista madrildarrak egindako Icaro eskultura. Irudiak 380 kilo ditu eta 2,5 metroko altura. Eskulturaren kostua 7 milioi-koa da eta Eusko Jaurlaritzak Elgoibarko Udalarari eman dio Maturana Garraio Sail-

buruaren erabakia dela medio. Itxura denez, Maturanak Arco 97 erakusketan ikusi zuen eginiko Icaroren irudia eta Esperanza D'ors-ek erostea erabaki zuen. Irudi hau "Los laberintos de Icaro" izeneko serie batekoa da eta irudi mitologikoak dira denak. Icaro Greziarren kondaira bateko pertsonaia da. Dedalok, Icaroren aitak, Minotauroaren laberintotik irteteko, argizarizko hegalak egiten dizkio semeari, baina, eguzkira ez hurreratzeko agintzen dio. Icaro, aitaren esanei muzin eginez, eguzkira hurbiltzen da eta hegalak urtu egiten zaizkio, itsasora eroriz. Esperanza D'orsen irudiak, Icaro adierazten du. Gorputza brontzezkoa da eta hegalak, berriz, altzairuzkoak. Argazkian, alkatea, Maturana sailburua eta Esperanza D'ors irudiaren inaugurazioan.



aitor zabala



Arturo Andraderen eskultura erakusketa

Dagoeneko herritar askok ikusiko zenuten Kultur Etxearen aurrean dauden eskulturak. Arturo Andrade artista elgoibartarrarenak dira eta Kultur Etxeko erakusketaren parte dira. Gutxitan izaten da artista baten lana hain gertutik ikusteko eta apreziatzeko aukera. Kanpoan sei eskultura handi daude eta barruan beste 25 txikiagoak. Harritzko eskulturak Markinako Santa Eufemiako harrobiko kalizarekin daude eginak, eta Kultur Etxeko aretoaren barruan dauden hainbat eskultura, brontzezkoak eta forjako burdinezkoak dira. Erakusketa kalean egitearen arrazoiari buruz galdetu diogu Arturori. Berak esan bezala, “artista baten lana ezagutzeko modurik onena da, nor bere obra herritarrei hurreratzea, alegia”.

75 lagun elkartu ziren Haizeak antolatutako kafe-solasaldian

Joan den zapatu gauean, Emakumearen Egunaren ospakizunen bueltan, kafe-solasaldia antolatu zuen Haizea Emakume Taldeak Kultur Etxeko sotoan. 75 bat lagun aurrean, herriko hainbat artistek euren jarduna erakutsi zuten. Balentziano trikitilariak, Ainhoa eta Irati Agirreazaldegiz bertsoariak, Edurne Lasa eta Mari Juli Arregik eta Nathalia kantariak hartu zuten parte. Azken honek, ‘bis’ a egin behar izan zuen ikusleagoak eskatuta. Haizeakoak “oso pozik” daude gauzak nola atera ziren ikusita. “Datorren urteko ospakizunetarako kontuan hartuko dugu aurtengo esperientzia”. Ekitaldian Afganistaneko emakumeekin elkartasuna adierazteko 60 sinadura batu ziren.



Cafes Bake Publizitatea



GRUPO DANOBAT

Aukerarik onena

DANOBAT

Arriaga kalea, 21
20870 ELGOIBAR

DANOBAT-SORALUZE

Arriaga kalea, 1
20870 ELGOIBAR

SORALUZE

Osintxu auzoa
20570 BERGARA

IDEKO C. T.

Arriaga kalea, 2
20870 ELGOIBAR

GOITI


Arriaga kalea, 1
20870 ELGOIBAR

ESTARTA

Autonomia, 1
20870 ELGOIBAR

LEALDE


Kortazar auzoa,
z/g



**MONDRAGON
CORPORACIÓN
COOPERATIVA**

ARRREN

11ko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 42. GEHIGARRIA



Herri Eskolako 5. eta 6. mailako ikasleek "Ikasnet" proiektuaren barruan, Euskal Herriko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 36 ikastetxerekin hartzen dute parte. Proiektu honetan "Internet" bidez hainbat eskolatako ikasleekin eskutitzak eta beste edozein informazio elkartrukutzen dute. Era berean, lehiaketetan parte hartu edo sarean agertzen den informazioa gelan ezta-

baidatzeko ere erabil dezakete. Horrez gain, Herri Eskolak Internet-ek eskaintzen dituen abantailak aprobetxatu ditu bere Hezkuntza Proiektua nabigatzaile guztiek ezagutzeko aukera izan dezaten. Gure eskola ezagutu nahi bauduzu, bisita ezazu gure Web orria. Helbidea ondokoa da: <http://www.geocities.com/Athens/Olympus/8875/>

Tristea

Bidean aurrera doaz bi sagutxo paseatzen, eta gainetik saguzaharra pasatzen da:

- Zer da hori? — galdetzen du batek.
- Nire senargaia, pilotoa da eta.



Jakitunen eskutik

Udaleku itxiak

Lehenik eta behin, udaleku itxiak zer diren aipatuz hasiko gara. Udaleku itxietan partehartzaile guztien elkarbizitza 24 ordukoa da. Udaleku irekietan, berriz, haurrak begiralearekin ordu batzuetako kontaktua izaten du, bazkaltzera eta lo egitera haur bakoitza bere etxera joaten delarik. Ondorioz, udaleku itxietan haur eta gazteek heziketa integrala jasotzeko duten erraztasuna handiagoa da, beraien partaidetza zuzena baita.

Udaleku itxiak dituzten helburuak antolatzaileek ezartzen dituzte, helburu hauek inguruan dauden haurrei erantzungo dietelarik. ATXUTXIAMAIAKArekin kasuan, haurren aisialdia jolaserako, lagunartean aberasteko, giza-emakume bezala hezitzeko eta gizartean integratzeko baliogarria izango da. Beste alde batetik, Elgoibarko Izarraren proiektu bat garelara kontuan hartzen badugu, haurren euskara erabilera eta berezko motibazioa areagotzea helburu nagusienetakoa bihurtzen da. Ikastetxeetan jasotzen duten euskararen ezagutza aisialdian gustura erabiltzea da gure zeregin garrantzitsua. Eta udaleku itxiak aukera ona eskaintzen digute, eguneko 24 orduak euskaraz

pasatzen baitituzte aste oso batean.

Helburu hauek hainbat aktibitate bidez lortzen dira: jolasak, eskulanak, antzerkiak, irteerak, kirola... Denak neska-mutilen gustukoak.

Ikus ditzagun udaleku itxien beste helburu batzuk:

- **Haurren autonomia garatu:** Etxean guraso gehienek dena eginda ematen diete haurrei. Udaleku itxietan, berriz, haur bakoitza bere kasa ibili behar da. Haurrak bere ekintzen aurrean erantzuten jakin behar du.

- **Beste haur batzuekin erlazioatuko da:** Betiko lagunez aparte lagun berriak ere egingo ditu. Udaleku itxiak gizarteratze prozesuan asko laguntzen dute.

- **Naturarekin erlazioatzea:** Haurrei natura zaintzen eta errespetatzen irakastea garrantzitsua dela iruditzen zaigu.

Hauz guztiez gain, beste helburu asko aipa ditzakegu, baina luze joko liguke. Azken finean, udaleku itxietara joaten garen denok (ume eta begiraleok) helburu nagusi bat izaten dugu: astebete primeran pasatu eta elkarrekin pasatuko ditugun egun hauek esperientzia ahaztezina izatea.



ELI MORENO
ATXUTXIAMAIAKAKO ZUZENDARI LAGUNTZAILEA

Zer iritzi daukazuordenagailu.....ei buruz?



DANIEL VIÑARAS, 10 urte



Ona. Joko asko ditu eta nere aita eta ahizparekin

SHEILA BLANCO, 9 urte.



Gustatzen zaizkit baina gehiegi erabiltzea txarra da,


ESTHER ZUBIAURRE, 14 urte



CARLOS FEIJO
12 urte

Galde debalde

- 1- Ba al duzu zortea ematen dizun zenbakirik?
- 2- Zein animalia izan nahi zenuke?
- 3- Zein mirari nahi zenuke gertatzea?
- 4- Nori egingo zenioke elkarrizketa bat.
- 5- Zein abantaila du umea izateak? Eta desabantaila?
- 6- Zer ez zaizu gustatzen egitea?
- 7- Zein ilusio duzu?



MAIALEN
MUGERZA
7 urte

- 1-Ez, ez dot sinisten holako gauzetan.
- 2-Txakur bat, cocker arrazakua.
- 3-Bartzelonako futbol jokalaria izatea.
- 4-Lagun bati, ez naiz mitozalia.
- 5-Abantaila ez duzula lanik egin behar eta desabantaila ez dizutela lagatzen nahi duzuna egiten.
- 6-Eskolan bidaltzen dizkiguten etxeko lanak.
- 7-Kurtsoa aprobatea.

- 1-3a asko gustatzen jata eta 0 bat ere ez.
- 2-Txakur txiki bat. Igual nere urtebetetzian erregalauko die.
- 3-Ahizpa txiki bat eukitzia.
- 4-"I'm a Barbie girl" abestixa kantatzen dabeneri.
- 5-Eskolan matematikak errezauek diazela. Desbentakia kalera bakarrik ezin naizela urten.
- 6-Entsaladako tomatia jatia.
- 7-Martxuan 28xa ailegatzia, nere urtiak diazelako eta lagunekin konbitia eiteko.

Zer da *urdukitasuna*?

IRATXE MENDIKUTE 10 URTE



"Gezurra esaten diozunean bati eta egia jakiten duenean barruan sentitzen duzuna".

JOSEBA GONZALEZ 7 urte



"Galtzen zarenean urduri jartzen zara".

CARLOTA CASTRILLO 9 URTE



"Elkarrizketa bat duzunean zure barruan sentitzen duzuna".

MIRARI ARRIZABALAGA 11 urte



"Gustatzen zaizun mutila ikusten duzunean sentitzen duzuna".

NEREA ASENJO 7 URTE



"Zure anaia edo ahizpa jaiotzen denean sentitzen duzuna".

OLATZ URBIZU 11 urte



"Azterketa, kontrol edo ebaluaketa bat duzunean sentitzen duzun barruko hotzikara".

Txiki erreportajea

Aste Santua Elgoibarren

Ikastolako DBHko 3. mailako ikasle talde bat gara eta Aste Santuari buruzko erreportajea prestatu dugu. Kazetaritza munduarekin erlasionaturiko euskarako lan bat egin behar genuenez, gauden urteko garaiari begira, interesgarritzat jo dugu gai hau.

Urteekin batera, Aste Santuaren benetako esanahia aldatuz joan da; duela zenbait urte, Aste Santuan bi ekintza nagusi izaten ziren: elizkizunak eta kaleko prozesioak. Ostegun eta Ostiral Santua egun ilunak izaten ziren eta egun horietan, gaur egun ez bezala, musika, zinea eta zenbait kirol debekatuak zuden. Egun isil hauen ondoren, Bazko Igandean alaitasuna nagusitzen zen, familia osoa elizkizunaren ondoren bazkaltzeko elkartzen zelarik.

Erramu Igandean, lehenengo prozesioa burutzen zen. Santa Klaran hasi, zenbait kale zeharkatu eta Parrokiaraino. Bertan herritarrek eta apaizek hartzen zuten parte.

Ostegun Santuan, Kristo artikulatu bat gurutzetik jaistearen sakramentu erritua irudikatzen zuten antzerki erara. Arantzadun koroa, gurutzeko inskripzioa eta iltzeak kenduz, kristalezko hil-kutxa batean sartzen zuten. Ondoren, hil-kutxa hau soldaduek

ezpata eta ezkutuaz, hau da, babes-teko burnizko tresnaz, prozesioan eramaten zuten San Frantziskoko komenturaino.

Bukatzeko, Bazko Igandeko meza nagusian, hilobitik Kristoren gorpua ateratzen zuten. Meza nagusiaren ondoren, Ama Birjina Santa Klarako komentutik plazaraino eraman eta bertan Kristorekin



Egileak: Eva Acuña, Oihana Apellaniz, Elur Arrieta, Erika Fernandez, Aitor Gisasola, Esther Gurrutxaga, Iñigo Lariz, Iñigo Leon, Egoitz Martinez, Maite Solas eta Gorka Zabala.

elkartzen zen.

Gaur egun, oster, aipaturiko ekintza guztiak ez dute jarraipenik. Baina badira oraindik mantentzen direnak. Alde batetik, elizari lotuta daudenak eta, bestetik, kultur ekintzak kontsidera daitezkeenak.

Elizak dioenez, Aste Santua, Erramu igandetik hurrengo igandera bitartean luzatzen da. Aste honetan zehar kristauak ospakizun bereziak izaten dituzte: Erramu eta Pazko

eguneko prozesioak, kalbarioak eta elizkizunak. Ostiral Santu, Pazko Eguna eta Baraukoa dira meza nagusienak.

Kultur ekintzei dagokienez, aurre ez da ezer berezirik antolatu, Atxutxiamaikaren haurrentzako irteeratik kanpo.

Herrian, gaiaren inguruko galdeketa bat burutu ondoren, jarraian aipaturiko ondorioez jabetuko gara.

Elgoibartarrok, gaur egunean Aste Santuari ez diogu erlijio zentzua soilik hartzen, jai eta atsedeen garai bezala bizitzen baitugu.

Elgoibartar kopuru handi batek ez du ikusten Aste Santuak zerbait faltan duenik. Hala ere, zenbait proposamen jaso ditugu, hauetako bat aitzinan elizan egiten zen antzerkia berreskuratzea litzateke. Honez gain, haur eta gazteentzako ekintzak ipintzea ere interesgarritzat jotzen du hainbatek.


Bukatzeko, gure esker onak adierazi nahi dizkiegu gure galdeketa parte hartu duten herritarrei, kultura saileko arduradunari eta herriko apaiza dugun Don Benatziori.

Aste Santu on bat igaro dezazuela guztiok!

Herritar dexentek, batez ere adin nagusikoek, elizako ospakizunetan parte hartzen dutela esan dezakegu. Gazteen artean, berriz, ez da joera hau erabat jarraitzen. Honen orde, elizatik at dauden ekintzak proposatzen dituzte, herrian bertan egin daitezkeenak bultzatuz. Bestalde, ohitura eliztiar batzuk berreskuratzea interesgarritzat jotzen da, tradizioari eustiz.

cometel[®]
SYSTEM

COMETEL S. A.
Ibaitarte, 13 - P. K. 159
20870 ELGOIBAR
Tel: 34-943-74 16 62*
Faxa: 34-943-74 09 50
e-mail: cometel_system@camerdata.es
http://www.camerdata.es/cometel_system



**BRONCES
GARITANO**



Tel: (943) 74 41 25 - 74 41 26
Faxa: (943) 74 41 55



AGUIRREGOMEZCORTA Y MENDI-


Azitain auzoa, 7 - P. K.
263
Tel: 34-43-12 16 12/08
Faxa: 34-43-12 15 72



- Errematxadore radialak
- Eskuzko prentsak, prentsa neumati-koak eta hidraulikoak
- Markatzaileak
- Ensanblairako linea automatikoak



Urbano Conde S. A.
San Antolin kalea, 1 - P. K. 55
Tel: (34-43) 74 04 00-4-8
Faxa: (34-43) 74 32 37
20870 Elgoibar



HS-1000 High Speed Machining Center

● **10.780 biztanle**

Gaur egun 10.768 biztanle ditu Elgoibarrek. Juan Carlos Abian, PPko zinegotziak otsailaren 27ko plenoan adierazi zuenez, "iazko datuekin konparatuta, 68 biztanle gutxiago gaudela konaturatuko gara". Abian arduratuta azaldu zen gai honen aurrean, izan ere, "arriskutsua izan daiteke 10.000 biztanleren azpitik egotea. Kasu horretan, instituzioetatik jasotzen ditugun lagun-tzak jaitsi egingo lirateke bai eta zinegotzi kopurua ere". Hortaz, hemen bizi baina errol-dan ez daudenei dei egin zien lehenbailehen izena eman dezaten.

● **Administrari posturako oinarrien onarpena**

Udalbatzak Udalerako administrazio orokorreko administrari bat kontratatuzko oinarriak onartu zituen. Herri Batasuna aurka azaldu zen oinarriek intsumituen inhabilitazioa jasotzen dutelako eta PPko zinegotziak ere kontra bozkatu zuen frogetan euskara eliminagarria izango baita eta ez puntugarria, berak eskatu bezala.

● **Ezkontza zibilak**

Azken plenoan zinegotziei ezkontza zibilak aurrera eramateko habilitazioa eskaini zitzaion. Hori dela eta, aurreantzean, edozein alderdiko zinegotziak gai izango dira bikoteak ezkontzeko.

1997ko aurrekontuen likidazioaren berri eman du Udalak

Emaizta onei esker inbertsio-maila hobetu egin da

Udalaren 1997ko ekitaldia benetan onuragarria izan dela azaldu zuen Isaak Loiolak, Hazienda batzordeko lehendakariak. Aurreko urteetako politika mantendu da ekonomiarri dagokionean. Hau da, gastuaren kontrola, aurrekontu zorrotzak, neurrizko presio fiskala eta sarrera onak markatutako politika jarraitu zuen 1997an Elgoibarko Udaleko Hazienda Batzordeak.



Isaak Loiola, Hazienda burua.

Emaitza onei esker gastu soziala areagotu egin da Eguneko Zentroa eta hilerriaren proiektua bideratuz. Era berean, zerbitzuak hobetzeko dinamika bultzatu da, Kirol Patronatuaren funtzionamendu ona, nekazal arloan egin diren inbertsioak eta ubideen bideratzearekin, besteak beste.

Ordainketa plana

Isaak Loiolak azaldu zuenez, Udal Gobernu taldeak martxan jarri zuen Ordainketa Planari esker ordainketa atzeratzen murriztu egin da eta ordainketa epeak negoziatu egin dira hornitzaile eta akredore garrantzitsuenekin.

Bilakaera

Elgoibarko Udal Aurrekontuen ejekuzio maila parametro altuetan mantentzen da, %99,36 eta %95,52 artean, hain zuzen. Sarreraren ejekuzio maila, berriz, %101,67 eta %99,98 artean dago. Guzti honetan zeriku-

sia izan du Leku-Ederreko garajeek izan duten salmenta onak. Izan ere, legegaldaren hasieran 71 garaje zituen Udalak salgai eta gaur egun 12 bakarrik geratzen dira.

Era berean, bankuekin dauden zorrak amortizatuzko eritimoa areagotu egin da eta egoera honek Udalak zentzuzko zormaila izatea ahalbidetu du. Honek guztiak gestio ahalmen handiagoa lagatzen du, biztanle bakoitzeko gastu publikoa presio fiskalaren igoera baino altuagoa izanik.

Egoera pozgarria

Isaaken hitzetan, "garbi dago Udalaren egoera ekonomikoak hobera egin duela eta optimistak izan behar dugun arren, hobe da txafleguak ez bota eta lanean seriotasunez jarraitzea". Hala ere, "aurrekontu zorrotzak eta gastuaren kontrolaren politikak ez dute esaterik nahi inbertsioak egin behar ez direnik. Aitzitik, aurrezki netoari esker, Udalak hainbat inbertsio finantziatu ahal izango ditu kanpoko dirulaguntzarik gabe".

1997ko likidazioa			
	1997	1996	1995
GASTUAK	1.271.622.763	1.158.466.249	1.165.162.172
SARRERAK	1.271.622.763	1.158.466.249	1.165.162.472

**OLASO
TABERNA**

Olaso industrialdea, 15
Tel: 74 31 85

- EGUNEKO MENUAK -
- LARUNBATETAN -
Rabak • Olagarroa • Fritoak
- GAUEZ -
Menu ekonomikoak eta
plater konbinatuak

- Meriendak, haurrentzako meriendak, afariak, luntxak, banketeak...
- Enkarguak egiteko aurrez deitu

ESKA EZAZU AURREKONTUA
INOLAKO KONPROMEZURIK GABE!

Ordutegia: Asteleheneetik ostiralera 7:00-22:30
Larunbatetan 9:00etatik aurrera

29 urte dituen eibartar honek nekazal injinerutza tekniko ikasketak amaitu eta DEBEMEN, Deba Beheko Mendi eta Nekazaritza Elkarteko gerente lanpostua atera zuen. Sei urte eta erdi egin ditu lanbide honetan baina 1998ko urtarril bukaeratik Eusko Jaurlaritzako Industri, Nekazaritza eta Arrantza saileko elikagai, industri eta politikarako zuzendaria da.

“Jaurlaritzako Nekazaritza zuzendaritza hartzia ona izan da”

– DEBEMENetik Eusko Jaurlaritzara.

- Abendu erdialdera eskaini zidaten postu, kargo politiko edo lanpostu hau. Egixa esan, lanpostua da beste ezer baino gehixo ze lan asko eitzen da.

– Zein da zure lana?

- Oin dala hiru bat urte bi zuzendaritzek bat egin zuten, batetik Elikagaien politikak eta bestetik, Nekazal Elikagaien Transformaziorako Industria politikak. Lehenenguan sartzen dia jatorrizko izendapenak, kalitate labelak, promozioak, azokak... Elikagaien munduan politika bat mantentzia azken finian. Bestetik industria lantzen da. Elikagaien industriak konpetitibitate mailan egon daitezen egiten da lan. Gaur egun hain modan dauden ISO 9.000, ISO 14.000 eta horiek guztiak bete ditzaten eta konpetitiboak izan daitezen.

Hauetz gain badago beste area bat zuzendaritza honen barruan gure produktuen kalitatea neurtzen duena. Inspektore talde bat dakagu eta enpresetan gure produktuek ze kalitate duten ikusten dute, etiketak dala, analisiak dala...

– Zein produktutan aritzen zarete batez ere?

- Batez ere Errioxako ardoa, Txakolina, gaztaia, esnekiak, okelarekin zerikusia duten enpresa guztiak, ortu eta fruta inguruan dauden danak, egurra transformatzeko enpresak, okindegixak... Denetik psikat.

– Dextente aldatu da, beraz, zure lana, ez?

- Askok. Egia esan ez daka zerikusi handirikan. Gainera, beste ikuspuntu batetik ikusten dia gauzak. Azken finian, gu ixa egunero gaude harremanetan Madril eta Bruselakin. Informazio maila oso

haundia da eta egunero jasotzen dozu gauza pila bat. Mahai gainian dakaten informazio guztixa irakurtzeko bakkarrik lau-bost hilabete biharko nitxuzke.

– Zergatik onartu zenuen lanpostu berri hau?

- Aldatzia ona da, ez bakkarrik neretzako, baitxa DEBEMENentzat ere. Ixa zazpi urte ein ditzudaz eta aldaketa bat ez dator gaizki. Neretako ere gauza berri bat ezagutzia ez da txarra nahiz eta gero berriz DEBEMENera bueltau. Ezagupenak osatzia beti da aberasgarria. Erronka bat da neretzako eta baitxa oportunitade bat ere. Azken finian, kontuan euki bihar da Euskadin hiru zuzendari daudela nekazaritza sailian eta horietako bat proposatzia aukera on bat zan.

– Zer eskain dezakezu zuzendaritza postuan?

- Sektorea ezagutzen dot eta DEBEMENen eindako lana ere ezaguna da kanpua, gauzak hain gaizki ez dia ein. Eta, batez ere, biharrerako beti prest, ordutegi barik.

– Ardura handiagoa da?

- Askoz handiagoa. Adibidez, kalitatezko inspektzioetan egunero-egunero amonestazio bat dao eta enpresa inportantiak dia, diru asko mobitzen da... Zaila da. Gainera, sekzio baten zuzendarixa zera, langilien arteko girua ere ona izan dadin saiatu bihar zera... Egunero-egunero gauza berriak ikasten ari naiz eta gustura. Legealdixan bukeran sartu naiz eta printzipioz urrira arte nao. Gero ez dakit zer pasauko dan. DEBEMENetik eszedentziakin jun naiz. Momentuz gustura nao aldaketiakin, aukera ona izan dalako.

NEKAZARITZA

BESTEAK ESANA

“Gestore ikaragarri ona da. Kaletarra izanda, baserritxarrak zein korbatadunak bereganatzen jakin du.”
AGUSTIN IRUSTA, laguna



Andoni Mujikak bakarleri modura joko du igandeko Bandaren kontzertuan


Txomin Mujikak, bere aitak, zuzenduko du pieza hori

Igandean, hilak 15, Udal Musika Bandak kontzertua emango du Herriko Antzokian. Jose Antonio Osoro Musika Bandako zuzendariak esan digunez, “kontzertu hau berezia da. Estreinakoz bakarleri modura Gustavo Barrenetxeak 17 urterekin jo zuen Mozart-en tronparako kontzertua, oraingoan Andoni Mujikak joko du 16 urterekin. Gaztetasun errekorra hautsi behar du Andonik”. Emanaldia are bereziagoa izango da, Andonik jotzen duen pieza bere aitak, Txomin Mujikak zuzenduko baitu eta ez ohiko zuzendariak, Jose Antonio Osorok.

Andoni Mujikak 8 urte zituenean ekin zion tronpa ikasteari. Gustavo Barrenetxea, gaur egun Sevillako Real Orkestra Sinfonikoko kidea dena izan zen lehenengo irakaslea. 12 urterekin Elgoibarko Musika Bandan ha-

si zen eta eta 15 zituenean Euskal Herriko Gazte Orkestarako oposizioak gainditu zituen, titular postua lortuz. Gaur egun Elgoibarko Musika Bandan tronpa solista da eta Arrasate Musical-en eta Madrilen, Estatuko Orkestrako Rodolfo Epelde maisuarekin tronpa ikasketak sakontzen ari da.

Saioa eguerdiko 12:30ean hasiko da. Kontzertuaren programa honako hau da: A. Alvarez maisuaren “Suspiros de España” pasodoblea, Liszt-en “Rapsodia



Andoni Mujika 8 urterekin hasi zen tronpa ikasten.

Hungara n°2”, “Canción India” R.Korsakov-ena, “Tronparako 1. kontzertua” Mozart-ena eta Malandoren “Lastima” samba-martxa.

● Antonio Irisarri saritu du Argazkilaritza Elkartearen Euskal Fedarazioak

Argazkilaritza Elkartearen Euskal Fedarazioak Antonio Irisarri argazkilaria saritu zuen joan den zapatuan, 40 urtez amateurren arloan egindako lanarengatik. Antonio irisarri Estellan jaio zen 1932an eta 20 urte beranduago, 1952an, Elgoibarre-
ra etorri zen. Juanita García elgoibartarrarekin ezkondu eta 1957an, bere lehen semea jaio zenean ekin zion argazkilaritzari. Agirresarobe anaien eta Gipuzkoako Argazkilaritza Elkarte-
ko irakasleen eskutik klaseak jaso zituen. 60 hamarkadaren




hasieran Elgoibarko Ongarri Argazkilaritza Taldeko bazkide egin zen. 1972az geroztik, Eibarko Clud Deportivo-n sartu zen eta beranduago, Donostiako Sociedad Fotográfica-ko bazkidea egin zen.

70 hamarkan hainbat lehiaketatan saritu zuten. Irisarrik argazkilaritzan hasi berri diren gazteenganako arreta berezia izan du beti. Hori dela eta, Ongarri Argazkilaritza Taldeak ohorezko bazkide izendatu zuen 1984an eta gaurdaino bera da izendapen hau lortu duen bakarra.

● Jasone Osororen estreinako liburua- ren aurkezpena

Jasone Osoro BARREneko lankideak “Tentazioak” izenburuko liburua aurkeztuko du datorren asteartean, hilak 17, Donostian. Estreinako liburua da honako hau, azken urtean idazten joan den ipuinez osatua. Izenburuak adierazten duen bezala, hainbat “tentazio” aurkezten dizkigu 26 urteko idazle gazte honek. 25 ipuin dira guztira, irakurterrezak eta ez oso luzeak. Maitasun istorioak, gizon eta emakumeen arteko harremanak eta eguneroko hainbat pasadizo modu atseginean eta puntu erotiko batez tratatzen ditu, bizitzako alde sensuala ederki isladatuz. “Tentazioak” Elkar argitaletxeak kalera-tuko du. Donostiako aurkezpenaren ostean, aurrerago, Elgoibarren ere liburua aurkezteko asmoa baduela esan digu Jasonek. Azala eta ilustrazioak Mikel Cornejok egin ditu.

"Auto rallyetan une oro ari zara bizia arriskatzen"



Jon
González

- **Adina:** 20
- **Gogokoen duzun autoa?**
BMW M3.
- **Istripurik edo antzekorik izan duzu?** Zorionez ez.
- **Autoan musika bai?**
Rallyetan sekula eta errepidean noanean bai.

- **Automodelismotik autoak gidatzera.** - Bai, horrela da. Rallyetako autoak gidatzen ditut. Igoeretan eta rallyetako ibilbideetan korritzen dut.

- **Zein ezberdintasun dago rally-en eta igoeren artean?** - Rally-etan etapak daude eta edozelako terrenoa topa dezakezu: batxeak, lurra... 80 eta 100 kilometro bitartean izaten dituzte. Igoera bat, berriz, hitzak dioen bezala, aldapa gora joatea da 7 bat kilometrotan eta asfalto gainean izaten da.

- **Noiz hasi zinen autoak gidatzen?** - Iaz sartu nintzen mundu honetan, bigarren urtea da, beraz. Nolatan? Txikitatik izan dut oso gogoko autoen mundua, izugarri gustatzen zait. Automodelismoarekin, hau da, auto txikiak gidatzen hasi nintzen eta aukera izan dudanean, benetako autoei egin diet kolpe.

- **Automodelismoan ibili izateak lagundu al dizu?** - Izugarri. Mekanikari dagokion guztia, adibidez, automodelismoan ikusi dut. Auto handi bat bezala da baina tamaina txikian.

- **Zenbat rallytan hartu duzu parte?** - Iaz bakarra korritu nuen, Iruñean. Igoerretan, berriz, Euskadiko Txapelketako proba batean 10. postuan geratu nintzen. Nire kategorian proba guztietan lehenengo izan nintzen batean izan ezik, tronpo bat egin nuen eta. Hasteko ez dago gaizki, ni behintzat, pozik nago.

- **Errekurtso ekonomiko asko behar al dira?** - Bai. Izan ere, azken urtea izango

da kirol honetan finantziario ezarengatik. Ez bada patrozinatzailerik irteten laga egin beharko dut. Garesti xamarra da kirol hau. Hasteko autoa erosi behar da. Normalean bigarren eskukoak izaten dira eta rallyetarako prestatzen dira, 300.000 pta.tik hasita ez dago mugarik. Nirea Renault 5 turbo bat da, 180 zalditakoa. Gero rallyetan izaten diren kolpe eta aberiak konpondu behar izaten dira. Azken lasterketan motorra erre egin nuen eta oraintxe amaitu dut konpontzen.

- **Zuk egin dizkiozu konponketak?** - Ahal dudana bai. Nire garajejan sartu eta lagun batzuekin konpondu dut. 150.000 pta. gastatu ditut baina tailer batera eramanez gero, askoz gehiago izango zen.

- **Emaiguzu erreferentzia bat rallyetan izaten den abiadurari buruzkoa.** - Errepidean aldapa gora zoazela, errebuelta bat 3. martxan eta 50 km. orduko abiaduran hartzen da normalean. Rally batean abiadura bikoitza edo gehiago izaten da. Atera kontuak hortik.

- **Oso arriskutsua da, beraz.** - Bai, zuk badakizu une oro zaudela zure bizitza arriskuan jartzen. Gidari ona izan behar da, auto ona eduki eta kopilotoa eta gidariaren artean konfidantza eta komunikazio handia egon. Berak esaten dizu zer datorren: zein martxa erabili, lurra nola dagoen... Dena oso azkar gertatzen da eta kontzentrazioa izugarria behar da. Errebuelta bat hartu orduko kopilotoa hurrengo noiz datorren esaten ari zaizu Autoak gidatzea sentsazio deskribaezina da, barrutik sentitzen den zerbait.



I. URTEURRENA

1997ko martxoaren 15ean, 86 urte zituela hil zen
NICOLAS EGURROLA BILBAOren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Madalako elizan
larunbatean, hilak 14, arratsaldeko 19:30ean.
Joaten zaretenoi eskerrak alde zurretik.



I. URTEURRENA

1997ko martxoaren 10ean, 71 urte zituela hil zen
ISABEL ANSOLA ARZUAGAren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 14, arratsaldeko 19:00etan.
Joaten zaretenoi eskerrak alde zurretik.



'Madrileko 100 kilometro' en lasterketan parte hartuko du Iñaki Kondek

Abuztuan munduko iron-man gogorrena egiteko asmoa du

Iñaki Konde elgoibartarra aspaldi dabil kirolaren munduan buru-belarri sartuta baina, oraingoan, beste abentura batean dabilela jakin dugu. Iñakiri deitu eta 100 kilometroko lasterketa batean korritu behar duen galde-tu diogu. Baietz erantzun digu. 'Madrileko 100 kilometroak' izena omen du lasterketak eta martxoaren 29an izango da, Madrilen, noski.



Argazkian, Iñaki 97ko Elgoibarko Duatloian. 47 urte ditu, lasterketa luzeetan aritzeko adin ezin hobea.

Iñakik kontratu digunez, sekula ez du korritu horren lasterketa luzea. "Ni beti ibili izan naiz maratoi erdixetan eta asko jota, maratoietan. Argi dakat probatzera nixela. Lelenengo 60. kilometrora ailegatzia izango da kontua, gero 80.era, eta gorputzak erantzuten badau, amaitzen saiatuko naiz". Abentura hau ondo ateratzen bazaio, datorren urterako ondo prestatu eta helburu jakin

batzuekin joateko asmoa duela aitortu digu. "Holako lasterketa bat ein daban madrildar batek esan zian urte osua eon zala preparatzen. Nik 3 hilabete daruat entrenatzen eta gutxienez 6 biharko nitxuala pentsatzen dot. Belaunak eta abduktoriak hasi diaz fakturia pasatzen eta hankazpixak ere zizko einda dauzkat".

Horrelako abentura batean parte hartzea gutxi ez balitz bezala, aurtengo abuzturako beste erronka

bat jarri dio Iñakik bere buruari. "Italia eta Frantzia bitartean, mediterraniar Alpeetan egiten den 'iron-man' batean parte hartzeko asmoa daukat. Hori bai dela erronka. Munduko iron-man gogorrena da eta horra helburu jakin batzuekin joango naiz". Iron-man deritzonak, triatletak egiten dituzte. Oso luzeak dira, 10 ordu ingurukoak eta korrika, bizikleta eta igeriketa egin behar izaten dira.

1 eta 3 galdu zuen Haundik Racing-en kontra

3 penalti eta 2 txartel gorri atera zituen arbitroak etxekoen kontra

Elgoibartar zaletuak arbitroarekin benetan haserretu ziren asteazken iluntzean Mintxetan ikusi zutenarekin. Hirugarren minutuan arbitroak penaltia pitatu zuen elgoibartarren kontra eta Trebiñori txartel gorria atera zion. Mikel Elgoro-Iribek protestatu egun zuen eta arbitroak kalera bidali zuen. Cocak penaltia jaurti eta estreinako gola lortu zuen Rancing de Santander B taldeak. Hirugarren minutorako Haundi 9 jokalarirekin geratu zen eta gol bateko desabantailaz. Lelenengo zatian Racing-ek kontrolpean izan zuen baloia baina elgoibartarrak ondo defendatu ziren. Bigarren zatian ezuste txar gehiago izan ziren elgoibartarrentzat. Haundi indarberrituta zegoela zirudien eta 10. minuto-

an Díazek gola sartu zuen buruz. Berdinketak, hala ere, gutxi irauin zuen. Hamar minuto beranduago Racing markagailuan aurreratu zen, 2 eta 1. Ordu laurden beranduago arbitroak berriz ere penaltia izan zela adierazi zuen eta Cocak hirugarren gola lortu zuen Santanderrekoentzat. Ez zen dena, ordea, hor geratu. Hirugarren penaltia ere pitatu zuen etxekoen kontra, baina oraingoan Ivanek geratzea lortu zuen. Partidu amaierarako harmailetan animoak oso bero zeuden. Arbitroa aldageletara abiatu zenean zenbait zaletu eta direktibo harengana hurreratu eta tira-birak izan ziren euren artean. Arbitraia benetan txarra izan zela adierazi zioten hitzak baino zerbait gehiago erabiliz.

EMAITZAK

Futbola

Izarra 3 - Haundi 0
Usurbil 2 - Elgoibar 2 (2. erreg.)
Axular 2 - Pedrusko 7 (2. erreg.)
Alavés 2 - Elgoibar 0 (E. L. jub.)
Elgoibar 4 - Martutene 0 (1. jub.)
Elgoibar 0 - Tolosa 3 (Kad.)
Lagun Onak 2 - Elgoibar 1 (Inf.)
Elgoibar 0 - Anaitasuna 5 (Neskak)
FEDERAZIO KOPA:
Haundi 1 - Racing Santander B 3

Areto futbola

Elgoibar 2 - Past. Agirre 0 (1. maila)
Elgoibar 2 - Pascual 3 (Auton.)

Eskubaloia

Unceta Elg. 18 - Urnieta 8 (Kad. nes.)
Pneumax Elg. 19 - Usurbil 27 (Kad. mut.)
Urnieta 18 - Pagoaga Elg. 18 (Jub. nes.)
Tecnomeca Elg. 20 - Usurbil 17 (Jub. mut.)
Bergara 26 - Elgoibar 24 (Seniorrak)

Idarraga Kafeak I. Sarla

C.D.ko jokalaria erregularrena 97/98

Jokalaria	Puntuak
1- Miguel Díaz	35
2- Eneko Barrenetxea	32
3- Gorka Guarrotxena	28
4- Karlos Madina	26
5- Ander Iruretagoiena	25
6- Iker Atxabal	22
7- Gaizka Lazarobaster	19
8- Jabier Gurrutxaga	19
9- Koldo Agirregomezkorta	17
10- Joseba Igartua	17
11- Unai Aranburu	16
12- Xabier Alonso	11
13- Jon Argoitia	9
14- Mikel Elgoro-Iribe	9
15- Igor Prieto	8
16- Aitor Trebiño	8
17- Mixel Badiola	6
18- Aiert Zinkunegi	5

AGENDA

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 14

16:00 Unceta Elg. - Zarautz (Kad. nes.)
17:30 Elgoibar - Arrate (Seniorrak)

Asteazkena, 18

19:30 Pagoaga Elg. - Arrasate (Jub. nes.)

Larunbata, 21

16:00 Pneumax Elg. - Urdaneta (Kad. mut.)
17:30 Tecnomeca Elg. - Urdaneta (Jub. mut.)

Futbola

Larunbata, 14

12:15 Elgoibar - Bergara (Kad.)
17:00 Haundi - Beasain
18:45 Elgoibar - Touring (2. erreg.)

Igandea, 15

17:00 Pedrusko - Urnieta (2. erreg.)
Osteguna, 19

12:00 Elgoibar - Aloñamendi (1. jub.)



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.Y.A (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 741357

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 HHI (EPA) 74 08 80
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Español 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki Irratia 74 34 74

A G E N D A

16 astelehena

18:30-22:00 ZINEA
 "Titanic"

19 osteguna

18:30-22:00 ZINEA
 "Titanic"

20 ostirala

19:00 GAZTE
 ASANBLADAREN
 BILERA
 Gaztetxean

18:30-22:00 ZINEA
 "Titanic"

21 larunbata

18:30-22:00 ZINEA
 "Titanic"

22 igandea

18:30-22:00 ZINEA
 "Titanic"

23 astelehena

18:30-22:00 ZINEA
 "Titanic"

20:00
 IKUSENTZUNEZKO
 EMANALDIA
 "Gipuzkoako jaiak:
 udaberria"
 Antolatzailea: Haritz
 Dantzari Taldea
 Kultur Etxean

26 osteguna

22:15 ZINE KLUBA
 "La buena estrella"

27 ostirala

19:00 GAZTE
 ASANBLADAREN
 BILERA
 Gaztetxean

22:15 ZINE KLUBA
 "La buena estrella"

13 ostirala

22:15 ZINE KLUBA
 "El prisionero de las
 montañas"

14 larunbata

10:00 ZUHAITZ
 EGUNA
 Albitxuriko zelaian

18:30-22:00 ZINEA
 "Titanic"

15 igandea

12:30 BANDAREN
 KONTZERTUA
 Herriko Antzokian

18:30-22:00 ZINEA
 "Titanic"

ZINEA



Zuzendaria: James Cameron.
 Antzezleak: Leonardo DiCaprio,
 Kate Winslet, Billy Zane.

Titanic

Luxuzko itsasontzi batean 1.500 bidaiari EEBBetara doaz. Itsasontzian bidaiatzen duten pertsonen artean maila baxuko eta altuko pertsonaia daude. Kontzentzio moral estuen presiopean bizi den neska bat, hirugarren mailan bidaitzen duen mutil abenturazale batekin maitemintzen da. Bien arteko maitasun harremanari esker, orain arte ezkutuan egon den mundua deskubrituko du neskak.

● **Donostiako manifestaziorako deia egin du Errotatzok**

Errotatxo Elkarteak, ADORE deritzon droga trafikoko eta epaileen pasibotasunaren aurkako salaketa aurkezten ari da egunotan herriko kolektibo eta alderdi politikoen aurrean, euren laguntza lortzeko asmoz. Honez gain, sinadurak bildu dituzte Donostiako Auzitegi Gorenean aurkezteko asmoarekin. ADORE herri ekimena *Salaketa* eta *Askagintza* elkarteek eratu zuten duela bost urte. Gaur egun Euskal Herri osoko 43 bat kolektibok osatzen dute herri salaketa hau eta HIESaren eta drogomenpekotasunen prebentziorako elkarteak dira denak. Salaketa hau Irungo Goardia Zibilak dekomisatutako 150 kilo kokaina desagertu zirela-eta jarri zuten. Orduetik bost urte pasatu dira eta salaketak ez du aurrera egin. Egoera hau salatzeke ADORE osatzen duten kolektiboek larunbatean, hilak 14, Donostian izango den manifestaziorako deia egin dute. Joan nahi duenak Errotatzoko kideengana jo dezake. Agian autobusa antolatuko dute.

● **Bihar, hilak 14, Zuhaitz Eguna**

Elgoibarko ikastetxe guztietako hurrek bihar, hilak 14, izango den Zuhaitz Egunean hartuko dute parte. Goizeko 10:00etatik aurrera, Gipuzkoako Aldundiak emandako 60 zuhaitz landatuko dituzte Albitxuriko zelaian. Ohi denez, Udal Brigadakoak han izango dira landatze lanetan laguntzeko.



● **Gipuzkoako jaiak buruzko ikusentzunezkoa Haritz Taldeak antolatuta**

Haritz Euskal Dantzari Taldearen 25. urteurreneko ekitaldien barruan, datorren astelehenean, hilak 23, Kutxa Fundazioaren ikusentzunezko emanaldia izango da Kultur Etxean. "Gipuzkoako jaiak: udaberria" da saioaren izenburua eta iluntzeko 20:00etatik aurrera ikusi ahal izango da. Honako herri hauetako jaiak buruzko irudiek osatzen dute dokumentua: Aste Santua Seguran eta Hondarribin, Segurako Santa Engrazi baselizan egiten den hazien be-deinkapena, San Telmo jaiak Zumaian, Maiatzeko Gurutzeta Legazpin, Corpus Christi Seguran eta Oñatin, San Juan bezpera Donostian, Abaltzisketan eta Tolosan, San Juan Andoainen, Hernanin eta Tolosan,... 40 minuz lu-zatuko den saioa euskaraz eta gaztelaniaz da.

T R A N D A K

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
14	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
15	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
16	Escala	Escala
17	Bidasolo	Bidasolo
18	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
19	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
20	Yudego	Yudego
21	Bidasolo*	Zabaleta
22	Bidasolo*	Zabaleta
23	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
24	Escala	Escala
25	Bidasolo	Bidasolo
26	Yudego	Yudego
27	Anduaga	Anduaga

*(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 75 16 38

ANDUAGA: Mendarozabal, 1

Garagarza. Tel: 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

15 igandea Idarraga

19 Osteguna Doña Mercedes

22 igandea Eizagirre

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: R. Franco
Antzezleak: Maribel Verdú, Antonio Resines, Jordi Mollá.

La buena estrella (Espainia)

Bizitza normal baten bila dabiltzan hiru pertsonaia dira istorio honen zentroa. Auzo bateko harakina, umezurtzetxe batean hasitako gaizkilea eta berekin maitemindutako neska dira protagonistak. Hiru pertsonaia marjinatu hauek bizitza gogorri aurre egiten ahalegintzen dira. Franco zuzendariak maisutasunez erakusten ditu galdutako diuntasanaren bila daitzan hiru pertsonaia hauen gorabeherak.

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Mutil bat behar da furgonetarekin eta autonomoa supermerkatu batean "portek" egiteko. Soldata ona. ☎ 70 15 90
 - ◆ Tabernan lan egiteko neska euskalduna behar da. ☎ 74 45 34
 - ◆ Neska behar da barra eta sukaldetan lan egiteko. Esperientziarekin eta ahal bada Elgoibarko. ☎ 74 37 60
 - ◆ Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko neska behar da. ☎ 74 38 83 (arratsaldeko 7etatik aurrera)
 - ◆ Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko neska euskalduna behar da. ☎ 74 45 87
- ### ◆ ESKAERA ◆
- ◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. ☎ 908 67 05 70
 - ◆ Atzerri komertzioan titulatu eskaintzen da dendari lana egiteko, umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. ☎ 74 10 09
 - ◆ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko egun osorako. Esperientziarekin. ☎ 19 21 28 (Asun)
 - ◆ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko neska eskaintzen da. ☎ 74 23 90

Etxebizitzak

- ◆ Etxea salgai Logroñon. Erdialdean dago, 2 logela, egongela, sukaldia, jangela, bainugela eta trasteroa ditu. Prezioa hitz egitekotan. ☎ 74 19 39
- ◆ Pisia salgai Santa Ana kalean. 4. pisua igogailuarekin. 105 m2 eta ganbara. ☎ 74 11 05
- ◆ Bikote bat bizitzeko baserri baten bila dabil Eibar edo inguru eta herrietan. Edozein egoeratan dagoen baserria interesatzen zaigu. ☎ 907 48 07 52
- ◆ Etxebizitza saltzen da Errosario 6-lean. ☎ 70 26 34
- ◆ Etxea alokatzen da Santa Ana kaleko 16 zenbakian. 2. pisua da. ☎ 74 37 14
- ◆ Buhardilla bat salgai P.M. Urruzuno kalean. Igogailua du. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna eta ganbara. ☎ 74 34 96 (Ana, gauez).
- ◆ Jakan (Membrilleras) 2 geladun apartamentua salgai. Garajea eta trasteroa ditu. ☎ 74 20 31/ 20 32 15

Bestelakoak

- ◆ Euskal artzai arrazako txakurra aurkitu nuen larunbatean. ☎ 74 35 72
- ◆ Taberna traspasatzen da Errosario kalean. Bezeroekin. ☎ 74 01 80
- ◆ Ihauterietako larunbat gauean mexikar moztorroaren txapela galdu nuen. ☎ 74 02 14
- ◆ Ihauterietako astearte gauean plastiko baten barruan zegoen moztorroa galdu genuen. Marruecosetik ekarritako eropak ziren. Topatu dituenak Pitxintxura eraman diztala.
- ◆ Otsailaren 17an urrezko pultsera galdu nuen zintzilikariekin. Saritu egingo da. ☎ 74 33 37
- ◆ Erloju baten penduloa galdu dut. Metalezkoa da eta bainu beltza du. Plaza Handitik Santa Ana kalera bitartean galdu nuen. Aurkitzen duenak dei dezala 74 26 55 telefonora, laga dezala Udaltzaingoa edo joan dadila Santa Ana 46, 1-C-1 eta Silvino Santosengatik galde dezala.
- ◆ Seilodun eraztuna galdu dut. "T" iniziala dauka grabatua. ☎ 74 27 85.
- ◆ Caritasek sukaldia, labea eta garbigailua emateko dauzka. ☎ 74 15 09 - 74 12 57

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Jaunartzerako neska batentzako soinekoa saltzen dut. ☎ 74 41 35
- ◆ Ford Mondeo autoa salgai. Egoera onean eta prezio hobean. ☎ 929 78 62 66 (Iñigo)
- ◆ Hozkailu ia berria saltzen da merke. ☎ 74 23 48
- ◆ Anplifikadorea (400 w), Pioneer markako bafleak (180 w), J.B.L. markako buferrak (200 w) eta bolante txuria kono eta guzti (3 besoko) salgai. Erabili gabe. ☎ 74 06 33 (Xabier, gauez deitu)
- ◆ Kamila bat eta infragorri lanpara saltzen dira. ☎ 70 26 34
- ◆ Arraunerako gimnasia makina saltzen da. ☎ 74 43 62
- ◆ La Unión elkarte baxkide batek bere partizipazioa saltzen du. ☎ 74 43 62
- ◆ Bero elektriko akumuladoreak (berogailuak) salgai. ☎ 74 15 19 (eguerdian).
- ◆ Motorrean ibiltzeko bi kasko ditut salgai. Berri-berriak daude eta prezioaren laurdenean saltzen ditut. ☎ 74 37 16 (E. Mancebo)

Garajeak

- ◆ Garaje itxia saltzen da Arregitorren. ☎ 75 51 77 (Tere)
- ◆ Garaje itxia alokatzen da Leku-Eder-en. ☎ 74 26 94
- ◆ Marradun garajea alokatzen da San Roke 5-7an. ☎ 74 33 39
- ◆ Garaje itxia saltzen da Pedro Migel Urruzuno kalean. ☎ 74 22 00 (Gaueko 21:00etatik aurrera)

Agurrak

- ◆ **Naiara Martini** zorionak hila- ren 14an 16 urte beteko dituelako. Familiaren partez.
- ◆ Zorionak hila- ren 17an urteak beteko dituen **Jose Irustari** Agust- in, Ana eta bereziki Elorri eta Ne- rearen partez.
- ◆ Zorionak **Elena Eta Igor** uda- berriaren atarian loratu duzuen lo- re eder (**Ainhoa**) horrengatik. AEK euskaltegiko ikaskide eta irakaslearen partez.
- ◆ Zorionak **Celia Rojori** hila- ren 10ean urteak bete zituelako. Adrian, Oihana, senarra eta ama- naren partez. Ez zaitez haserretu!
- ◆ Zorionak **Amaia Oterori** gaur, martxoak 13, 13 urte bete dituela- ko. Ikastolako DBH 1 gelakoan partez.
- ◆ Zorionak **Amaia Gorostizari** martxoaren 19an 34 urte beteko dituelako. Alabaren partez musu haundi bat.
- ◆ Zorionak **Unai Ortegari** mar- txoaren 12an 11 urte bete zituela- ko. Solfeoko klasekoan partez.
- ◆ Zorionak **Nereari** hila- ren 10ean 12 urte bete zituelako. Oselen par- tez.
- ◆ Zorionak **Olatz Uriguenari** martxoaren 6an 9 urte bete zitue- lako. Ikastolako 3A eta 3B geleta- koan partez.
- ◆ Zorionak **Nerea Sanchez**zi hila- ren 10ean urte- ak bete zituela- ko. Mirari eta Oihaneren par- tez. Lagunen partez ere asko



◆ Gure gelako "mutiko" **Borja**ri gaur 20 urte bete dituelako zorionak eta musu bana. AEK euskaltegiko ikaskide eta ira-

kaslearen partez.

◆ Zorionak izeba **Carmeni** hila- ren 20an urteak be- teko dituelako. Mila esker tele- fonoarengatik baina pagaren zain nago. Musu bat zure iloba Paularen partez.



◆ Zorionak **Elena Silviri** mar- txoaren 12an 21 urte bete zituela- ko. Monikaren partez.



◆ Musu handi bat eta 7 tirakada fuerte belarritik **Elorri**ri astelehe- nean urteak bete- ko dituelako.

Ahizpa Nerea eta gurasoen partez.

◆ Hila- ren 24an **Iria Andrade Urainek** 2 urte beteko ditu. Zo- rionik beroena



amama, guraso eta osaba-izeben partez.

◆ Aupa **Itxaso!** Astelehenean zu- re eguna, ezta? Ondo-ondo pasa, 7 tirakada bela- rritik eta muxu handi bat. Zorio- nak Bidatzen partez.



◆ Zorionak **Izas- kun Esnaolari** hila- ren 12an 9 urte bete zituela- ko. Mila kilo zo- rion familia oso-



aren partez. ◆ **Koldobike!** Berandu izan arren, oraindik nobenarixo bar- ruan gaozenez, zorionak zure familiako guztien



partez.

◆ Zorionak **Mikel Tarraguali** mar- txoaren 12an 15 urte bete zituela- ko. Monikaren



liga dezala!

◆ Zorionak **Unai Muñoz** martxo- aren 12an 13 urte bete zituelako. Gurasoen partez 13 milioi musu!



GARAY



San Frantzisko, 9 • Tel: 74 13 92

*Etengabe berritzen
eta modernizatzen
kalitatearen eta
bezeroaren mesedetan*



SALTXITXAGINTZA eta ADOBATZEA

Etxean landutako saltxitxa, solomo, hirugiharre eta beste produktuetan, ez dugu kontserbante edo osagarri berezirik erabiltzen. Azken urteotan, Merkatarien Elkarteko bazkide garen harakin talde batek, guk landutako produktu freskoak "preparatu industrialak" erabili gabe prestatzea helburu izan dugu, aipaturiko Elkarteak horretarako antolatu dituen ikastaroen bidez.

Kontserbante naturalak erabiliz (gatza, azukrea, bizigarriak, etab.), bezeroi kalitatezko jakiak eskaintzen dizkiegu.

Harategian bertan osagarriak aldatuz lortzen dugu produktuari identitate berezia ematea.



Saltxitxak



Solomoa



Hirugiharrea

elgoibarko ikastola

DBH (12-16)



Azken teknologik erabiliz



Autonomia bultzatuz

Prestakuntza Sendoa



Giro atseginean

Giza baloreetan oinarrituta

eta Mundura Zabalduta



Europara zabalduta

ZUBIARRRE



elgoibarko ikastola

ermuaran bide 7 · tel. 744441 · 20870 elgoibar · elgoibar@ikastola.net

